

LANGILERIA ANTOLATU, GIZARTEA ERALDATU

MÁS SINDICATO, MÁS VIDA

2026
Urtea

IMQ ZORROZAURRE

Bergoi Gastaka Astobiltza

Bihotza García Carrera

Silvia Sanleón Galán

Nerea Rodríguez Quintana

Imanol Fernández González



IMQ Zorrozaurre (Bilbo)

IMQ Zorrozaurreko langileek hitzarmen berri bat lortu zuten negoziazio gogor baten ondoren. Hala ere, lortu zuten KPlaren bermea, lanaldi irregularreko malgutasuna murriztea, urteko lanaldiaren orduak murriztea, eta soldataren % 5eko lanpostu-osagarria, soldata-arraila murrizteko, beste hobekuntza batzuez gain. Lagun horiek argi dute ELAn afiliatzea erabilgarria eta eraginkorra dela.

Afiliatu

ELA

EUSKAL SINDIKATUA



ela.eus

Afiliatu... zertarako?

Zaila da langileontzat gure lan eta bizi baldintzak defendatzea; izan ere, enpresei botere osoa eta baliabide guztiak eman dizkiete euren interesak defendatzeko.

Zuk zeuk bakarrik ezingo diozu aurre egin patronalari, lantokietako negoziazioetan desoreka eta botere harremanak baitaude.

Horregatik, antolakuntza eta borroka kolektiboa ezinbestekoak dira erronka horri eusteko.

Afiliatzea ezinbesteko urratsa da, erabaki naturala. Elkarrekin bakarrik lortuko dugu.

Hori da sindikatua. Zure lekua da, elkarrekin askoz indartsuagoak gara.



“ELA da lan eta bizi baldintzak hobetzeko akordio gehien lortzen dituen sindikatua: 2025an 160 baino gehiago”



Zergatik afiliatu ELAn?

ELA Hego Euskal Herriko sindikaturik indartsuena da, 104.000 afiliatu baino gehiago ditu eta enpresetan aukeratutako 9.800 ordezkariatik gora, hau da, HEH osoko (EAE eta Nafarroa) ordezkari-tza sindikalaren %36 baino gehiago.

Gauzak horrela, ELAk bakarrik negoziatu ditzake parez pare baldintza hobeak enpresek in. Ez dago indartsuagoa den sindikaturik.

ELAk bere afiliatuei erantzuteko sarerik zabalena du. 43 lokal ditu Euskal Herrian. Gainera,

ALDA aldizkaria -104.000 alerekin zabalkunde handiena duen euskal aldizkaria- eta beste argitalpen batzuk jartzen ditu afiliatuen eskura, idatzizkoak (Landeia), digitalak eta ikus- entzunezkoak. Inor ez dago zugandik gertuago.

ELAn ia 100 pertsona daude lanean zerbitzu juridikoetan, eta iaz, **9.951** espediente kudeatu zituzten; hau da, urtero EAEko lan eremuan izapidetzen diren kasuen %37 baino gehiago. Inork ez zaitu hobeto babestuko.



*“ELAk iaz **9.951** espediente juridiko kudeatu zituen; hau da, EAEko lan-eremuaren % 37a baino gehiago”*

Zergatik da ELA hain eraginkorra?

ELA da Euskal Herrian lan baldintzak eta bizi baldintzak hobetzeko hitzarmen eta akordio gehien lortzen dituen sindikatua (iaz, 160 baino gehiago: enpresetan, sektoreetan...). Ez da lan makala eta baliabideak behar dira.

Enpresariak bere irabazien zati bat langileei emango die soilik aurrean borroka mantendu ahal izateko baliabideak dituen sindikatua badu.

Izan ere, sindikatuko greba-kutxari esker, ELAk **1.495 euro** (ohiko kalte ordaina, gehienez norberaren ohiko soldataren mugarekin) ordaintzen dizkie afiliatu guztiei hilean, grebak dirauen bitartean, hau da, soldata jasotzen ez duten bitartean. Gatazkak irabazteko eta akordio onak sinatzeko baliabide erabakigarria da.


2025ean, **3.911 pertsonak** baliatu zuten greba-kutxa. ELAk afiliazio kuoten bidez jasotzen dituen lau eurotik bat greba-kutxara bideratzen du. Sindikatuaren aurrekontuaren %90a diru sarrera propioak dira. Beste modu batera esanda, autonomia da.



"2025ean, 3.911 pertsonak baliatu zuten greba-kutxa. ELAk afiliazio kuoten bidez jasotzen dituen lau eurotik bat greba-kutxara bideratzen du."

2025

diru-sarrerak



%89,06	%0,25	%0,61	%9,11
Diru-sarrera propioak	Organoetan partehartzea	Neg. kolektiboaren funtsak	Dirulaguntzak. Guztira
25.060.162	70.683	172.502	2.564.540

0,05%	%0,84	%0,08
Beste diru-sarrerak	ITF Ikuskaritza	Prebentzio ikastaroen emaitza
14.151	235.181	21.958

%100
DIRU-SARRERAK. GUZTIRA
28.139.177

ELA zu zarelako...

ELAk autonomia dauka eta bere helburua langileen interesak defendatzea da. ELAk bakarrik esan dezake hori. Sindikatuak gauzak aldatzeko konpromisoa hartu du, konplexurik gabeko sindikalismoaren aldeko apustua egin du, beste gizarte eredu baten alde, genero ekitatearekin, euskararekin eta klimaren aldaketaren aurkako borrokarekin konprometituta. ELAk indarrak batzeko aukera ematen dizu, zuk nahi duzun tokiraino iristeko tresna da.



Hori guztia eta gehiago, zure beharrei erantzuteko zerbitzu guztiak barne, afiliazio kuota bakarraren truke.



“ELAren aurrekontuaren ia % 90 diru sarrera propioak dira; horrek bermatzen du sindikatuaren benetako autonomia”

B: 27,91 €

Lanaldi osoa

M: 20,93 €

Lanaldi erdia baino gutxiagoko langileak,
prestazioa duten langabetuak

P: 13,96 €

Erretiratuak, eszedentzian daudenak,
lanaldi herena baino gutxiago dutenak, edo
prestaziorik gabeko langabetuak

*Laneko aldaketek kuotarengan izan ditzaketen
aldaketetaz informatzea afiliatuari dagokio.

Greba-kutxa (2026)

Ohikoa (1.495,73 € hilero)

Indartua (1.720,09 € hilero)





Afiliatu

www.ela.eus

